



2025

SORALUZEKO XL. IDAZLAN LEHIAKETA

EGILEAREN DATUAK

MAILA: _____ GOITIZENA: _____

LANAREN IZENBURUA: _____

EGILEAREN IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____ HELBIDEA: _____

LEHENA: Parte hartzea.

Soraluzen jaiotakoek edo Soraluzen bizi zein bertan ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte.

BIGARRENA: Lanen ezaugarriak.

- 1.- Lanak euskaraz idatzitakoak, jatorrizkoak, inoiz argitaratu gabeak eta beste inongo lehiaketetan saririk jaso gabeak izango dira. Itzulpenik ere ez da onartuko.
- 2.- Lanak txukun, garbi eta modu ulergarrian aurkeztuko dira. Arau hau betetzen ez duten lanak zuzenean baztertuko dira.
- 3.- Luzera eta sariak:

	Ikasmaila edo jaioturtea	Luzera	1.saria	2.saria	3.saria
A maila	LH 3-4 (2016 eta 2015)	1-2 orrialde	Diploma eta oparia	Diploma eta oparia	Diploma eta oparia
B maila	LH 5-6 (2014 eta 2013)	1-2 orrialde	Diploma eta oparia	Diploma eta oparia	Diploma eta oparia
C maila	DBH 1-2 (2012 eta 2011)	2-4 orrialde	Diploma eta bonoa	Diploma eta bonoa	Diploma eta bonoa
D maila	DBH 3-4 (2010 eta 2009)	2-4 orrialde	Diploma eta bonoa	Diploma eta bonoa	Diploma eta bonoa
E maila	2008 eta lehenago	3-10 orrialde	Diploma eta 200€	Diploma eta 150€	Diploma eta 100€

- 4.- Gaia: librea izango da.
- 5.- Epaimahaia: Soraluzeko Euskara Batzordeak aukeratutako pertsonak osatuko dute.
- 6.- Gutxieneko maila: Epaimahaiaren iritziz, talderen batean aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez balute, sariak hutsik geratuko lirateke.

HIRUGARRENA: Lanak aurkezteko epea.

Lanak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 30era artekoa izango da.

LAUGARRENA: Lanak nola aurkeztu.

Idazlanak izenik jarri gabe aurkeztuko dira eta izenaren ordezkari jarriko da.

- A, B, C eta D mailak: Idazlanaren atzealdean, eskuorriko honetako EGILEAREN DATUAK atala beteta eta grapaz josita aurkeztuko dira.
- E maila: Kartazal handi batean aurkeztuko dira lanaren ale bat eta sobre txiki bat kanpoan egilearen goitizena eramango duena eta barruan EGILEAREN DATUAK atala beteta.

BOSGARRENA: Lanak nora bidali.

- A, B, C eta D mailak: Ikastetxean bertan entregatu beharko dira.
- E maila: Udal liburutegian entregatu beharko dira.

SEIGARRENA: Sariak.

Maila bakoitzeko hiru lanik onenek saria jasoko dute.